

Disoluzioak

Behar dituzu

- 6 edalontzi
- Gatza
- Txokolate-hautsa (Cola Cao, Nesquik, Subixa...)
- Hondarra
- Kafe-hautsa
- Xaboi-hautsa
- Olio

Buru-haustea

Arrautzak eta olio nahasiz, maionesa egiten da. Inork esango al digu zer gertatu den? Disoluzioa... ez! Suspentsioa... ez! Orduan?

Zer egin

1. Bete edalontziak ur hotzez, erdiraino.
2. Lehenengo edalontzian, bota gatz pixka bat. Irabiatu koilara batez.
3. Gainerako edalontzietan, gehitu hondarra, kafe-hautsa, xaboi-hautsa eta zorrotada bat olio. Bakoitzean gauza bat, eta behatu zer gertatzen den.

Esperimentuak egiten jarraitzeko gogoia baduzu, egin esperimentu bera ur epela erabiliz. Desberdintasunik igarri duzu? Zeinetan gertatzen da azkarrago disoluzioa, hotzean ala epelean?



Kimika hutsa

Magia ematen duen arren, kimika hutsa da. Gatza (solutua deitzen diote kimikariek) zuria da, baina urarekin (disolbatzailea deitzen diote) nahasten denean ez da ikusten, desagertu egiten da. Gatza disolbatu egin dela esaten da orduan. Disoluzio horrek ez du atzera bueltarik; ezin dira berriro ere ura eta gatza bereizi, iragazi arren.

Hondartzako area, aldiz, urarekin nahastean, ez da desagertzen: arre-kolorekoa da, eta arre-kolorekoa izaten jarraitzen du uretan ere. Ez da desagertzen, “igerian” geratzen da. Horri suspentsioa deitzen diote kimikariek, eta ez disoluzioa.